

KRITIKA > LITERATURA

Grinak dantzan

DANTZALDIA

Jatorrizko izenburua: Le bal. Egilea: Irene Nemirovsky. Itzultzailea: Eider Rodriguez. Argitaratze urtea: 2006. Argitaletxea: Txalaparta.

INMA ERREA

LITERATURAK bizi garen toki edota garaietatik urrun eramaten ahal gaitu, bizi ezin izan ditugun denboretara garraiatu, bestela ezagutzerik ere izanen ez genukeen giroetara lekualdatu. Hori du literaturak, hori eta, batera, inoiz bizi izan gabe ere besteen -pertsonaien -sentipenak ezaguntzat jo ahal izatea,

eta gure baitan birsortu, sortzaile batek inoiz -sarri guregandik urrun, hala denboran nola espazioan - irudikatu zuen kontakizunean murgilduta.

Irene Nemirovsky idazlea guregandik urrun dago denboran, heriotzak jendea aldatzen duen heinean urrun, eta bizi bitartean hainbat alditan guregandik, euskaldunongandik, hurbil egon bazen ere - Hendaian, Miarrizten edota Donibane Lohizunen, euskaraz mintzatzera ere iritsi zelarik -, urrun jaio zen, Kieven, eta urrun samar, Parisen, idatzi zuen orain gure hurbileko beste idazle batek, Eider Rodri-

guezek, euskaratu -hots, gureganatu - duen nobela, *Dantzaldia* hau.

Nemirovskyk jakin zuen, asmatu, kontakizun konkretu baten bidez jendearen sentimenak eta pertsonen arteko harremanak osagai dituen putzu sakonetik ur biziak ateratzen, eta Rodriguezek asmatu du ur horiek guregana fresko ekartzten.

Emaizta nobela labor eta trinko hau dugu, giro jakin batean bizi den neska nerabe konkretu baten bizipen unibertsalak eta jendarteko kontentzionalismo arruntek ezkutatzten dituzten bizi-gabeziak kontakizun dituen.

Antoinette protagonistak, 14 urteko nerabea den aldetik, nerabetasunaren ezaugarri unibertsalak erakusten dizkigu, muturrekoak izanagatik ere zorrotzak, egiazkoak. Antoinetteren sentimendu eta pentsuen ifrentzu, guraso aberastu

berrien jokabidea deskribatzen digu idazleak, eta haien azalakerian, Antoinetteren bezain konprengarri agertzen zaizkigu Kampf jaun-andreen arrazoi eta moldeak. Zorigaitza, kasu honetan bezala gizon-emakumeek beraiek sortua izanagatik ere, beti baita ulergarri. Nemirovskyk amorruez, mendeku-gogoz, zorionik ezaz edota inguruko zorigaitza abiaburu duten poz txiki kasik aitorrezinez ehundutako tapiza erakusten digu, eta itxurakerietan oinarritutako mundua deskribatuz gogoeta sakonetan murgilarazten gaitu irakurleok. Gizarte-mailen inguruko gogoetetan, kasu, edo mendekutik errukira doan tarte harrigarriro laburrari buruzko hausnarketetan.

Nemirovskyk jendarteko itxuretan sakontzen du, irudia jainko duen jendartea zorrotz diseinatzen du,

azaleko mundu bat erakutsi, eta aldi berean pertsonen baitako bulkadak, joerak eta jaidurak azaleratzen ditu, jendarteko mundu formalaren parean jendearen baitako grina ezkutuenak paratzen ditu, irakurleek aldera ditzagun edo.

Nemirovskyk, naziek gazte (40 urte bete gabe) hil bazuten ere, asko utzi zuen idatzia, hamahiru nobela, besteak beste. Horien artean, idazlea hil eta askoz geroago, 2004an, *Suite française* izenburuarekin argitaratutako eleberria, alabek nobela zela jakin ez eta urtetan irakurtzera ausartu ez ziren eskuizkribua, hala idazlea bera nola hark egindako lanak mundu osoan ezagunak egin dituen liburua. Bada nor *Suite française* hori ere euskaratzeko eskatu duena. Hori baitu literaturak. Asetzeko gauza denean, ase-gaitz bilakatzen gaitu.



Graffiti bat egiten dute bi lagunek. ARGAZKIA: TOPAGUNEA

Hirugarren graffiti lehiaketa antolatu du Topaguneak

PARTE HARTZAILEEK ABUZTUAREN 31RA ARTE BIDAL DITZAKETE ZIRRIBORROAK

“Gazteak kultur ekoizpenean parte hartzera” animatu nahi ditu Euskara Elkarten Federazioak

IRUÑEA. Topagunea Euskara Elkarten Federazioak Euskal Herriko Graffiti Lehiaketaren hirugarren edizioa antolatu du, “Gazteak kultur ekoizpenean parte hartzera animatzeko”, antolatzailerik azpimarratu dutenez. Horretarako, oso garrantzitsua da gazteen gustukoak diren kultur adierazpide berriak euskaraz normaltasunez garatzea, eta esparru horietan dabilzan gazte euskaldunen ereduak aurkeztea. Izan ere, horretarako sortu zen duela hiru urte Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa. Sormena sustatzeko lehiaketaren aurreko bi edizioek arrakasta handia izan zuten, eta hori dela eta, ekimenari aurretik ere jarraitena ematea erabaki da.

Hirugarren edizio honen buruz burukoa Tolosan egingo da, iraila-

ren 16an, herriaren 750. urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan. Lehiaketa aukera paregabea da gazteek ere herriaren urteurrenaren ospakizunetan zuzenean parte har dezaten.

Lehiaketaren nondik norakoak ere azaldu zituen ekimenaren aurkezpenean Sonia Pérezek: “Parte hartu nahi dutenek horman margotuko duten graffitiaren zirriborroa aurkeztu behar dute lehenengo eta behin, eta horretarako epea abuztuaren 31n amaituko da”.

Aurkeztutako zirriborro guztien artean aditu talde batek hamar lan aukeratu ditu, eta horien egileek irailaren 16an margotuko dituzte aurkeztutako zirriborroak, Tolosan. Hamar graffiti horien artean, lau sari banatuko dira iluntzean egingo den jaialdian: 1.200 euroko

hiru sari, (teknikaren erabilpen egokiena, koloreen erabilpen egokiena eta graffiti original eta freskoena), gehi *Kalitatea* sari bat, Eusko Label duten hainbat produktuz osatutakoa. Sonia Pérezek hitzetan, “antolatzailerik burubelarri ari gara lanean, eguneko programazioa ahalik eta erakargarriena egin ahal izateko”. Jaialdiaren inguruko xehetasunak irailaren hasieran emango dituzte.

Euskararen erabilera areagotzeko lanean dabil Topagunea Euskara Elkarten Federazioa. Gazte Sailak, besteak beste, gazteen aisialdi eta kultur beharrei erantzuteko, *asteburuetan.com* gazte programa garatzen du. Programa horren bitartez, Topagunea euskara erabiltzera animatu nahi ditu gazteak, haien gustuko jarduerak euskaraz antolatuz.

Aurreko edizioetan bezalaxe, orain ere Topagunea Euskara Elkarten Federazioak antolatu du lehiaketa, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioaren eta Galtzaundi Euskara Elkarten lankidetzaz, eta hainbat erakunderen babesarekin. >I.F.

JOXEMARI ITURRALDE

IDAZLEA

“Nobela historikoa esatea kontraesana da; edo nobela da, edo historia da”

IRUÑEA. Joxemari Iturraldek (Tolosa, 1951) *Nafarroako artizarra* kale-ratu berri du, 1984an euskal literatura berrian esanguratsu izandako eleberria, eta oraindik ere irakurleen interesa pizten segitu nahi duena.

Hogei urteren buruan zeure liburu zaharberri batekin zatokiguru. Testuak berdintsu dirau baina, zertan aldatu da egilea?

Hogei urteren ostean pertsona guztiok aldatzen gara, batzuk besteak baino gehiago. Hogei urte hauetan liburu dezente kaleratu ditut eta beste egile askoren ehunka liburu irakurriko nituen. Suposatzen da horrek balio izan didala zertxobait gehiago ikasteko eta jakiteko ofizio honi buruz. Suposa daiteke, baita ere, orduan izan nuen freskotasan apur bat galduko nuela urte haue-tan, baina ez dakit segurua.

Eta testuari urteek on egin diote, ala gehiegi antzematen zaizkio zimurrak, garai bateko kerak eta kerak?

Uste dut oraindik ere liburua oso fresko mantentzen dela, gustura irakurtzen dela eta erakargarria izan daitekeela. Baina hori, jakina, irakurleak esan beharko du.

Euskal literatura osoak urte haue-tan egindako bilakaeraren lekuko moduko bat ere bada, ezta? Zer azpimarratuko zenuke alde horretatik?

Urte hauetan euskal literaturak izugarrizko aurrerakada egin du, bai kantitatean nola kalitatean ere. Nik *Nafarroako artizarra* publikatu nuenean literaturgintzan egiten zen guztia ezagutzen nuen, segitu eta irakurri egiten nuen. Gaur egun hori, zorionez, ezinezkoa litzateke. Orduan publikatzen ziren liburu onak, eta orain ere bai (gehiago orain, nik uste). Halaz ere, bi ataletan gabilza oraindik nahiko gazki: ez dago kritiko literarioz osatutako taxuzko *corpus* edo multzo finko eta ezarririk. Eta garrantzizkoago dena, ez dago literatura-irakurle multzo handi eta ezarririk gure gizartean. Gazte jendeak irakurtzen du gehiago, baina behartuta eta eskola-zirkuituetan sartuta.

Kritikaz esan duzuna zehaztuko zenuke gehixeago?

Kritiko literarioak falta dira, eta, beraz, horien urtetako lanak osatuko lukeen *corpus* kritikorik ere ez dago: kritika estilo ezberdinak, kritika eskola diferentek, ikuspuntu estilistiko ezberdinak, idazlearen lanetara hurbiltzeko joera diferentek... Idazleekin egin ohi den modura kritiko literarioekin ere posible izan beharko luke hauek sailkatzea era ezberdinetan beren lana egiteko estiloaren arabera: prestakuntza akademikoa, ideologia, esperientzia, irakurketa maila... Baina, tamalez, horretatik ez daukagu oraindik ere ezer.

‘Nafarroako Artizarra’ra, itxuraz nobela historikoa, izatez ez hainbeste...

Ondo pentsaturiko liburua da. Nobela historikoen gainean egindako hausnarketa literario bat da, baina ez teorikoa, fikziozkoa baizik. *Nobela historiko* esatea kontraesana handi bat esatea da. Edo nobela da, edo historia da, ez dago besterik. Liburu postmoderno bat da, duela 23 urte idatzitakoa, horrelakorik euskaraz ez zegoenean. Irakurleari garai historiko bat kontatzen zaio, baina aldi berean idazleak abisatu egiten dio irakurleari ez sinesteko dena, keinu bat luzatzen dio esanez bromatan ari dela. Kontuan hartuta garai hartan zer-nolako nobela historikoa zeuden modan gure artean, *Joanak joan* eta abar, berehalaxe uler daiteke zein izan nuen helburu liburu hau idaztean.

Erdi Aroko Lizarra kulturen arteko bizikidetasun-adibidetzat har liteke, eta baita Toledo ere, zure pertsonaia batek egiten duen bidaiaren bitartekarako aipatzearen. Giro haren nolabaiteko lilurak bizi zaitu?

Erdi Aroko urte askotan, urte luzetan, Lizarra, Tuter eta antzeko hiriak eredu-garri izan ziren kultura eta bizikidetasun aldetik. Nik juxtu egoera horren urraketa, amaieraren hasiera kontatzen dut. Eta denbora eta espazioarekin jokatu ia gaur egun arte ekartzen dut protagonistetako bat. Alegia, giro on eta aparteko hura orduan hasi zen izorratzen eta badirudi, esaten nuen duela hogei urte, gaur egun arte ailegatu zaigula orduan hasi zen biolentzia eta elkar ezin ikusi hura.